

TORTURARIK EZ

STOP

INOIZ ETA INON

Gogoeta batzuk

Azken aste hauetan Euskal Herriko bazter guztietan entzun izan ditugu, “herri demokratikoak” deituetan gertatzen ari diren basakerien berriak. Inolako lotsarik gabe torturatzen dela munduan zuzentasuna ezarri nahi duten herrietan.

Komunikabideei esker agertu izan zaizkigu gutxien uste genuenean “legez” atxilotutako pertsonen ohi zaizkien tratatu txarren berriak. Oihartzunik handiena izan dutenak, jakina, Irak eta Afganistan herrietako atxilotuekin estatubatuarrek eta egin izan dituzten basakeriak.

Horrek lurrikara sortu izan du, itxura batean, gobernu europar farisearren artean. Estatu Batuetako gobernuako agenteak, munduko zenbait tokitan harrapatutako ustezko gaizkileak Europan zehar hegazkinetan garraiatu dituztela eta. Kristo torturatzeko agindu zuen Pilato ospetsuaren antzera eskuak garbitu dituzte. Ustez atzeratuak diren herrien aurka direnak eta ez direnak esan arren, Europa “zibilizatu” honetan ere antzerakoak gertatzen ari dira, inor gutxi lotsatzen delarik.

Egun hauetan pil-pil eta indar berriz agertu zaigu arazoa, Joxe Arregi hil zutenaren 25. urtea gogora ekartzerakoan. Hori zela eta urtarrilaren 11n Donostiako kaleetan gogor salatu zen oraindik Espainiako estatu barruan gertatzen ari den "tratu txarren errealitatea" eta halakoek izan ohi duten zigorrik eza.

Presoei eta eman ohi zaizkien tratu txarrak mota askotakoak izanik (dispertsioa, senitartekoekin harremanak bidegabeki mugatuak izatea, gaixotasun kasuetan sendabideak eskuratze-ko eragozpenak jartzea,...) 'tortura' tratu txarrak azken muturrera eramatea izango litzateke.

Torturek, bestalde, salbuespenak salbuespen, gehienetan iturburu politikoak izan ohi dituzte, menperatu nahi den talde edo herri bateko ekintzaileei aplikatzen baitzaie: a) taldearen jardueri buruzko informazioa lortzeko. b) taldeko gainerako kideei buruzko berriak jasotzeko. c) halako taldeetako pertsonengan izua sortzeko. d) atxilotuek beren buruak salatzeri behartuz zenbait ekintzen erantzuleak harrapatu direla jendaurrean esateko, e) gorrotoaren eraginez...

Inoizka bestelako tortura-motarik izan bada ere, gehienak mota honetakoak izan ohi dira gaur egun. Astakeriarik handienak egin dituztenak ere ez dira torturatzen, zigorrik handienak ezartzen zaizkien arren. Tortura, beraz, egintza mota baten zigorra izatetik haratago joan ohi den zerbait dugu.

Herri inperialistek beti torturatu izan dute, menpe zituzten herrietan askapen mugimendurik sortzerakoan. Antzinako kasuak alde batera utziz, oso ezagunak dira naziek erabilitako tortura motak nahiz Aljeliako gerran frantsesek erabilitako metodoak. Frankoren garaian ere egunero ogia genituen torturak, politikoki beste modura batera pentsatzen zutenen gogoak makurrarazteko eta herritarrengan izua sortzeko.

Une honetan badakigu komunikabide askeen bidez Estatu Batuko indarrek hainbat lekutan beren esku dituzten preso ekintzaile susmagarriak maiz eta gogor torturatzen dituztela, zenbait betiko desagertzeraino. Gaur bertan jakitera eman dute

komunikabideek Britainia Handiko armadak Iraken egin berri dituzten basakeria batzuen berri. Hemen eta hor sarri kalera-tzen dira eskandalu handiak! Baina, estatuaren arrazoiak gain-ditzen direnez, ez dute behar adineko erantzunik jasotzen. Presoren bat heriotzaraino torturatu duen bat baino gehiago geratu izan da itxura hutsezko epaiketaren bat egin ondoren aske edota pare bat urteko zigor sinboliko bat jasoz.

Hala, baina, urruti gertatu ohi diren halako tortura-kasuen aurrean protestarik ugari egin, eta giza eskubideen alde papa-rak zabal aurreko lerroan agertu ohi izan diren bat baino gehia-go izan dugu aho mutu halakoak inguruan gertu izan direnean!. Bat-batean oinen azpiko lurrak irentsi balitu bezala desagertzen dira! Ez dituzu torturaren aurkako inolako egintzatan ikusiko!

Hor dugu oraintsu kaleratu izan zen Unai Romanoren kasua. Denok harri eta zurtz utzi gaituena. Epaileak auzitegian jarria zuen salaketa baztertzeaz gainera, salatzailearen aurka egiteko mehatxu gogorra egin du; horren aurrean zenbait adierazpen egin zuten politikari batzuk, salatu egin duten arren ezer gutxi egin dute horrelakoen aurka bideak jartzeko orduan.

Donostian, otsailaren 11n torturaren aurka egindako mani-festaldian, bestalde, tortura salatzeaz gainera, beste zerbait ere lortu nahi izan da. Bide berriak ireki nahi izan dira, torturatzen jarraitzeko aukerak ere behingoz desagerrarazteko. Egin-egine-an ere, Espainiako eta Frantziako estatuetan justiziaren erake-tak hainbatean laguntzen duelako torturatzeke orduan.

Nazioarteko salaketak eta gomendioak:

Nazioarteko erakundeek behin eta berriro egin dituzte sala-ketak eta zeintzuk diren eragozpenik nagusienak esan ere bai. Denok dakigu bi unek ahalbideratu ohi dutela bereziki tortura, hots, atxilotetaren ondoren izan ohi den inkomunika-zio-aldiak eta atxilotuak toki batetik beste batera eramateko egiten bidaia-aldiak.

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak 2003/32 ebazpe-
nean honelako hau zioen: *“inkomunikatutako atxiloteta luze-
ak tortura ahalbidera dezake, eta, berez tratu krudel, anker eta
iraingarritzat har liteke; are gehiago, baita torturatzat ere”*.
Aurtengo txosten batean Human Rights Watchek honako hau
adierazi zuen: *“Nazio Batuen giza eskubideen erakundeen arte-
an adostasun handia dago honako ideia honi buruz; inkomu-
nikazio erregimenak giza eskubideak era larrian urratzeko bi-
dea eman dezake eta, beraz, debekatu egin beharko litzateke”*.
Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeak (CPT) honako
hau dio: *“litekeena da pertsona bat epailearen aurrera agertu
aurretik bost egunez inkomunikaturik artxibatuta edukitzea
bat ez etortzea Espainian (nazioarteko zuzenbideak agintzen
duenari men eginez) bete beharko liratekeen baldintzetan”*.

Iritzi horiek kaleratu zirenean bertan Zapatero jaunaren go-
bernuak aho batez aldarrikatu zuen torturaren kontra *“O tole-
rantzia”* politika zerabilela. Espainiako gobernuak hainbat eki-
men bultzatu ditu nazioartean aurpegia zuritzeko ahaleginetan.
Hala ere, Human Rights Watchek zera adierazi zuen: *“CPTk
behin eta berriro egin du inkomunikatutako atxilotuei atxilo-
tzen dituzten unetik bertatik abokatuarekin hitz egiten uzteko
gomendioa”*. Hala ere, estatuko fiskal nagusia den Conde-
Pumpido jaunak inkomunikazioa defendatu du: *“ez duelako
defentsa eskubidea urratzen, eta kolegiatutako abokatu profe-
sional baten asistentzia eskaintzen duelako; are gehiago, atxi-
lotutakoaren erakunde kriminalak berak zuzenean izendatu-
tako abokatu bat eskaintzen du, zenbaitetan”*.

Salaketa mota hau eguneroko ogi bihurtzen ari zaigu. Une
honetan nahikoa izan ohi da baztertu edota espetxeratu eta zi-
gortu nahi denari talde armatu baten estrategiako parte dela le-
poratzea, burura etortzen diren neurriak ezartzeko. Gertatuko
ote litzateke halakorik, frogatzen ez direnean halako salaketek
salatuei sortutako kalteak ordaindu beharra ekarriko balukete?
Dударik gabe kontu handiagoarekin ibiliko lirateke, halako
ekintzen kalte-ordainak ordaindu beharra izango balukete.

Torturaren kasuan, gainera, ezin izaten denez, gehienetan, gorputzean eta diren matxurak beraren ondorioz sortuak direla frogatu, edota halakoak torturaren ondorioz etorriak direla frogatu arren, norik eginak izan diren, eskuak aske izan ohi dituzte torturatzailleak, ez delako legalki pertsona zehatz bati inputatzeko biderik izaten.

Espainiako Gobernuak Nazio Batuen Torturaren Kontrako Aukerako Protokoloa onetsi duen arren, ez du ezertxo ere aldatu legediaren disziplinan, estatuko segurtasun indarrei galdetuta metodorik ankerrenak erabiltzeko ahalmen guztiak ematen dizkion legedi horretan.

Oso ugariak izan dira azken urte hauetan Nazio Batuetako arduradunek egin izan dituzten salaketak. Tortura gaietarako Nazio Batuen Kontalari berezia den Mandred Nowak austriarrak, Giza Eskubideen Batzordearen 61. bilkura saioan Genevan aurkeztu zuen E/CN.a/2005/60/ÇAdd.1 txostenean hurrengo 13 kasutan izandako jokabideak aztertzeko eskatzen zitzaion Espainiako estatuari: Guardia Zibilak atxilotutako Mikel Aienza Laborda, Jon Otegi Eraso, Harkaitz Melchor Hoces; ertzainek atxilotutako Aingeru Cardaño Reoyo; Mexikoko agintariek Guardia Zibilaren esku utzitako Jose Miguel Etxeandia Meabe; eta polizia nazionalak atxilotutako Joseba eta Eneko Compains Silva, Jordi Puri Planell eta Garikoitz Arruarte Santacruz.

Horrez gainera, Kontalariak Emakumeen kontrako Indarkeriaren Gaietarako Kontalari Bereziarekin batera jakinarazi zitzaion Polizia Nazionalak atxilotutako Aiala Marike Arbeoren atxilotetaren kausak eta ondorioak, baita ertzainek atxilotutako Naiara Mallabia Sanchez, Ana Lopez Barrio eta Roberto Saiz Olmosena bere mutil lagunarena ere. Kasu horietan guztietan zehatz-mehatz adierazita daude atxilotuta nola gertatu zen eta atxilotuek jendaurrean egindako tortura adierazpenak: kolpeak, poltsaren bidezko itolarria, ariketa fisiko akigarriak eta gorputz jarrera behartuak, mehatxuak...

Kontalariak Espainiako Gobernuak emandako erantzuna ere jaso du; gobernuak behin eta berriro dio, estereotipoari jarraituz, ez duela kasu horietan inongo salaketarik jarri den berririk, eta horrela justifikatzen du horiei buruzko ikerketarik batere egin ez izana eta inolako jarduera penal edo zigor jarduerarik abian jarri ez izana.

Amaierarik gabeko testu multzoa bildu ahal izango genuke, nahi izanez gero, hemen zer nola jokaera izan duten Espainiako eta Frantziako estatuak (hau ere hainbat aldiz salatua izan baita; azken egunetan presoiei eman ohi dien tratatu txarrak direla eta) adierazteko. Beste bat ekarriko dut amaitzeko, oso adierazgarria delako:

Adierazpen Askatasunari buruzko Gaietarako Kontalariak, Ambeyi Ligakoak, tortura aipatu zuen E/CN.4/2005/64/Add.1. txostenean. Kontakizun horretan premiazko jakinarazpen baten berri ematen du, honi buruz: *“2003ko otsailaren 20ko operazioa, Guardia Zibilak, Audientzia Nazionaleko epaile batek bideratuta, Euskaldun Egunkaria euskal egunkaria behin-behinekoz itxi zuenekoa, eta egunkari horrekin lotura zuten honako hamar pertsona hauek atxilotu zituenekoa: Inigo Uria, Martxelo Lazkano, Inma Gomila, Xabier Alegria, Xebiere Oleaga eta Txema Auzmendi”*. Horri buruz dio: *“atxilotu guztiak inkomunikazio erregimenean jarri zituzten, terrorismoaren kontrako legediaren arabera, eta Madrilgo Audientzia Nazionalera eraman zituzten”*. Kontakizunean aurrerago, zera azaltzen du: *“egunkariaren zuzendari obiak, Martxelo Otamendik, egunkaria itxi ondorengo atxilotetan eta inkomunikazio al-dian egin zizkioten tortura eta tratatu txarrengatiko auzi eskea egin zuen 2003ko ekainean”*. Eta eransten du deitoratzen duela txostena amaitzeko garaian, Espainiako gobernuak bere jakinarazpenari emandako erantzunik ez izatea.

Nazio Batuan egindako salaketak aurrerago ere joan izan dira. Horrela, 2005eko ekainaren 3an jakinarazi zuen Nazio Batuen Torturaren Kontrako Batzordeak (CAT) Cat/C34/D/

212/2003 erabakia. Bertan Kepa Urrak jasandako torturen ondorioz zigorrak jaso zituzten torturatzailerei indultua ematea salatzen zen.

Amnistia Internazionale taldeak ere, ia urtero salatu izan du Espainiako estatua torturaren aurka ezer ez egiteagatik: “*Gai honen inguruko isiltasunak eta agintariek tortura salaketak atzera botatzeak, ikerketarik gabe, bereziki zaila egiten dute babesa eta bermeak ikuskatzera, benetan garrantzikoa den arren*”.

Hemengo aipamen gehienak Espainiako gobernuari dagozkionak izan badira ere, Frantziako gobernuak ere antzerako joera (espetxeratuei emandako tratuari dagokionez hainbat kasutan askozaz ere gogorragoa) erakutsi izan du euskal ekintzaileen kasuan, halako batzuk kondena Espainiako espetxeetan betetzea eskatzera bultzatzerainokoa

Tortura baztertzeko proposamen zehatzak

Otsailaren 11n Donostian izandako manifestaldian gogora ekarri zuten amaieran hitz egin zutenak urtarilaren 28an aurkeztutako manifestua, jendeari elkartasuna eskatuz, torturaren aurkako borrokan “fase berri bat” izango dela uste baitute. Hori horrela, torturaren ondorioak gogoratzeaz gainera, horren iturburu izan daitezkeenak ere ezabatu nahi dira. Horretarako zenbait taldek eta pertsonak ageriko egin duten manifestua jaso nahi dut hemen:

Tortura eta audientzia nazionale desagertzearen aldeko manifestua

1. TORTURAREN ERREALITATE UKAEZINA DA EUSKAL HERRIAN.

Euskal Herria eta estatuen arteko gatazka politikoaren eremuan tortura daogela eta aplikatzen dela dudagabeko errealitatea da. Azkeneko 26 urteotan 8 euskal herritar (Arregi, Muruetagoiena, Lasa, Zabala, Zabalza, Calvo, Iantzi eta Kalparso-

ro) komisaria eta kasernetan torturapean hil egin dira eta 6.000 mila gorako tortura salaketa judiziala jaso dira. Estatuko Segur-tasuneko Indarrek, terrorismoaren aurkako borroka delakoan atxilotuei eman beharreko tratuari dagokionez, tortura erabil-tzean dute. Bestalde, ezin dugu ahaztu Espainiako zein Fran-tziako espetxeetan ere tortura teknikak erabiltzen direla. Errea-litate horrek espainiar estatuaren izaera ez demokratikoa azala-razteaz gain, zuzenbide-estatuaren oinarritzko porrota dagoela agerian uzten du ere, eta Espainiako eta Frantziako estatuen izaerari eta jokaerari buruzko sinesgarritasunik galtzea dakar.

2. TORTURA SALBUESPENEZKO TRIBUNALEN TRESNA JUDI-ZIALA DA

Torturaren praktika ahalbideratzen, uzten eta babesten duen legedi berezia dago Euskal Herrian: terrorismoaren aurkako le-gedia, atxilotuen inkomunikazioa dakarrena hain zuzen ere. Le-ge honen pean kasernetan eta polizia etxeetan tortura ematen da. Baina torturatuen salaketen aurrean entzungor egiten duen botere judiziala ere badago. Torturaren praktika ofizioz inoiz ikertzen ez duen botere judiziala; tortura salaketak mesprezuz artxibatzen dituen botere judiziala. Izan ere, torturapean lortu-tako deklarazioak eta testigantzak ontzat hartu eta froga izaera eransten die, herritarrak zigortzeko. Horren ondorioz tortura erabilera legitimatu ez ezik, era horretan ere oinarritzko eskubi-deak eta berme-sistemak urratu eta erabateko estatu poliziala ezartzea errazten du. Praktika hau onetsita gerra-justiziaren kontzeptua ere onartzen da. Egoera hau demokrazian erabat onartezina da. Honengatik beragatik zeharo onartezina ere jo-tzen dugu Frantziar Estatuaren jarrera, euskal herritarrak tortu-raz baliatzen diren Espainiar Estatuaren salbuespenezko tribu-nalen eskuetan utziaz.

3. TORTURA ETA GATAZKAREN KONPONBIDE DEMOKRATI-KOA

Urteetan zehar luzatu den gatazka politikoan erantzuna emateko errepresioan oinarritutako konponbidea proposatzeak

bide politikoak eta elkarrizketarako aukera guztiak ixten ditu. Testuinguru honetan, terrorismoaren aurrean "denak balio duenaren" teroria gailentzen da, eta horren barruan, torturaren praktika gerra tresna bezala nagusitzen da, beste lagunen aurka edota atxilotuen euren buruen aurkako deklarazio errudunak lortzeari begira. Egite errepresibo honen atzetik, beste hainbestetan bezala, salbuespenezko tribunalak ditugu. Euskal Herriaren bizitza politikoa behin eta berriro baldintzatzen duten tribunalak. Hauek dirauten bitartean gatazkaren konponbide politikoari nekez ekin dakioke askatasunez eta demokraziaz.

4. TORTURA ERROTIK EZABATZEKO GURE ALDARRIKAPENAK.

Gaur egun, torturaren aurkako borrokak posizio irmo bat eta fase berri bat eskatzen ditu; batetik, torturaren erabileraren aurkako aitzakiarik gabeko gaitzespeneko planteamendua behar du, eta bestetik, gerra-justizia eta estatu polizialaren aurkako borroka ere behar du. Hori dela eta, tortura dagoela eta aplikatzen dela, jakinda, honako aldarrikapen hauek exijitu behar ditugu:

1. **Terrorismoaren aurkako legea eta atxilotuen inkomunikazioa indargabetzea.**
2. **Audientzia Nazionalea Euskal Herrian esku hartzerik duen epaitegi berezi gisa desagertzea.** Izan ere, auzitegi horren jarduketak torturaren erabilera ahalbidertu eta estaltzen du, eta gainera, gerra-justizia ezartzearen aldeko auzitegi bilakatzen da, objetibotasunik eta neutraltasunik gabekoa, tortura erabiltzetik suertatzen diren salaketak ez ikertuz eta haien errutinazko artxibatzea burutuz tortura babesten duten beste auzitegiaren paper laguntzailea ahaztu gabe.
3. **Atxilotuei tortura edota inkomunikazioa aplikatu zaizkion zigor prozedura judizial guztiak baliogabetzea.**

4. **Tortura dagoela eta sistematikoki erabiltzen dela politikoki aitortzea, torturak kalte guztion aurrean nolabaiteko errekonozimendu gisa.**
5. **Estatu aparatuen erantzukizuna depuratzea torturari dagokionez eta polizia indar errepresiboak desagertzea.**

Amaitzeko euskaldunontzat torturaren ikur gertatu zaigun Joxe Arregiri 2005eko azaroan Hendaian eskainitako bertso batzuk eskaini nahi dizkizuet gogoetarako bide izango dituzuelakoan:

1

Torturak zenbat aurpegi dauzkan
aztertzen hasi orduko;
mende laurdenak irudi anitz
utzi dizkigu lekuko.
Nahiz botereak hau estaltzeko
erabili hainbat truko;
guri Joxeren irudi hura
ez zaigu inoiz ahaztuko.
Muga mugako egoera baten
ezin dugu izan neutro.

2

Gizaki bati ezartzen zaion
neurri gabeko trantzea.
Gerta daiteke bizitza bera
tortura bidez galtzea.
Edo bestela bere izaera
suntsitu eta lehertzea.
Gaur eguncan gertatzen dira
bata bezala bertzea.
Mende laurdena pasata gero
tristea da balantzea.

3

'Latza izan da' esan zenuen
saminez zorigaitzean;
Mezua iltzatu zitzaigun Joxe
bihotzaren bihotzean.
Duintasunez beteta daude.
zure hitzak azken funtsean.
Oroi-minaren ziztada dago
oroimenera sartzean.
Ta horregatik Joxe ez zaude
oroitzapen huts hutsean.

4

Tortura beti ezkututzen da
boterearen legetan.
Denok dakigu nortzuk dauzkagun
agintzen herri honetan.
Erantzukizun bikoitza dute
Jardun basati horretan.
Esku zuriak azaldu arren
Lohituta daude koipetan.
Bainu jantzian ibiltzen dira,
torturatzaileen errekan.

**TORTURARIK EZ
INOIZ ETA INON**

Patxi Uribarren Leturiaga